

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Kontraesanak eta kontraesanak

Ustez estatu laikoan bizi gara; gure egutegiko ia jai guztiak, ordea, erlijio-jatorrikoak dira. Protestarik egin ez ezik, lasai asko joaten gara oporretan Aste Santuan; ustez oso ezkertiarak izan eta erlijioak kontu pribatua izan behar duela aldarrikatu arren.

Ustez NaBaikoak ere badira eliza eta estatua banatzearen aldeko, baina Nafarroako Parlamentuan harrera egiten diote Done Mikel Aralarkoaren irudiari.

Ustez berdintasunean bizi gura dugu (berdintasun-legeak eta guzti ditugu!), baina inguruan milaka eliza katoliko, ebanjeliko, Jeobaren Lekukoen... ditugun arren, inor gutxik egin du kexurik, meskitak zabaltzen hasi diren arte.

EAJ-PNV ere ba omen da akonfesionala; baina aurreko urte guztietan bezalaxe, meza santuarekin eman diote hasiera Forondako piknikari.

Ustez Bildukoak homofobiaren kontra daude; datozen hauteskundeetarako Gipuzkoako zerrendan, aldiz, batere lesgaytranszale ez den hautagai bat ageri da.

Ustez gure agintariak ere ez dira homofoboak, ezta sexofoboak ere. Ekainaren 28etan, sexu-askatasunaren aldeko sekulako adierazpenak egin ohi dituzte, norberaren afektibitatea ez ezkutatzeke dei egitera ere heldurik. Bilboko alkate Iñaki Azkuna ez da salbuespen,



IÑIGO AZKONA

baina gero berak gobernatzen duen udalak sexuarekin zerikusia daukaten adierazpen *oso barnekoak* debekatzen dituen ordenantza onartzen du. Aste Nagusian izan ziren eraso homofoboak salatzeke egin zen kontzentrazio jendetsuan ere, udaleko ordezkari bakarrak Bildukoak. Alkate jaun ez homofoboaren arrastorik ez.

Ustez, inkesten arabera, Estatu espainiarreko biztanle gehienak M15 mugimenduko aldeko dira. Inkestek, berriz, espektro politikoan beste muturrean legokeen PP alderdia jotzen dute garailetzat hauteskundeotan.

Ustez legeak betetzen dituzten agintariek, interesatzen zaienean baino ez dituzte betetzen. Adibideak ugari: espetxe-politika, Kukutzaren eraistea...

Denok izaten ditugu kontraesanak. Esaterako, sexu berekoak ezkontzeko eskubidearen alde sutsu borrokatu dut; halere, harreman batean hamabi urtez nabilelarik, ez naiz ezkondu. Era berean, ateo militantea naizen arren, Aste Santuko prozesioak gustuko ditut. Baina, tira, hori beste historia bat da. Azken batean ni ez naiz inoren ordezkari,

boto-emaile xumea baizik, eta ez diot neure botoa preseski PPri emango. Kontraesanak eta kontraesanak daude. ■



«
Denok izaten ditugu
kontraesanak. Esaterako,
sexu berekoak ezkontzeko
eskubidearen alde sutsu
borrokatu dut; halere,
harreman batean hamabi
urtez nabilelarik,
ez naiz ezkondu
»

TXANDAN

Josu Amezaga



Preso eta iheslari politikoak etxera, horixe premiazo erroka. Baina zein ote da horretarako formula egokiena? Hamarkadetan zehar amnistia izan dugu helburu, duela 35 urte bezala. Baina ezin ahaztu orduko haren izaera bikoitza: batetik oinazez betetako herri borroka baten emari pozgarria izan zen. Bestetik, frankismoa eta haren kolaboratzaileak ere babestu zituen amnistiak, haien krimenak inoiz epaitzeko edo sikieran onartuak izateko bideak itxiz; Espainiako Erregeak 1977ko Amnistia Legea sinatu zuenean, hartara, besteak beste bere burua ere zuritu zuen.

Amnistia?

Amnistia, etimologiari jarraiki, amnesia bat da. Baina ahaztu, ezagutzen duzuna soilik ahaztu dezakezu. ETArekin ekintzak ondo ezagutzen ditugu, guzti-guztiak errebindikatu baititu. Milaka pertsonak prezio altua ordaindu dute horiek egiteagatik. Estatuak eta bere kudeatzaileek ordea ez dituzte beraien chunka hildakoak, milaka torturatuak eta abarrak aitortu ere egin. Horregatik behar da formula egokia bilatu, gatazkaren ondorioei buruz lortzen den hitzarmenaren arabera sekula aitortu ez diren ekintzak estalita baina ahaztu gabe gelditzeko arriskua baitago. ■

